



# USKURTZ-GAYAK

## GOIZPARKI EDO EBANGELIJUA

BAGILA-3 GARENKU



*«Itsubak itsuba bidez eruan daike ala?  
Ez-ete-dira, ordez, bijak lexara jausiko?»*

Aldi atan: Josu'k bere ikaslarraj esan eutsen: Erükijoia ixan zatez, zuben Atea be erükijoia dan lez.

Ezegitzozube iñorbatu eretxirik ezari, ta zubek be etzarie gaiztetisiko. Parkatu egixube, ta azketi edo partatuko dautzube.

Emon egixube, ta zubei be emongo dautzube: neuri ona, ta betia, ta erabilgia ta ganezkoya kolkuetan imifiko dautzube. Zubek iñorbatu neurituko dautsazuben neurijaz beraz zubei be neurituko dautzube.

Eta irudien be esan eutsen: «Itsubak itsuba bidez eruan daika ala? Ez-ete-dira, ordez, bijak lexara jausiko?»

Ikaslarria eza irakaslarria (maxuba) baño nagosijagua; baña, ikaslarria oso betia ixango da, irakaslarria aña ba-da.

Eta zegatik eure lagun-urkuaren begijetan aozlaztua ikusten do, eta eure begijetako abia eztok uartutene?

Ala zelaren eure anayari esango ete-dautsak: Anai: eure begitik aozlaztua kentzen itxi egistik, euk eure begijoyetan abia ikusten eztula? Azal-guzur: lenen eure begijetatik abia kendu egik; eta orduban eure anayaren begiñik aozlaztua ataretan ale-ginduko az.

## ENE ZORI-TXARA

Goiko berezira juan zan aurtemin  
Abijalik txorikumak aírtzen gure Txomin  
-Txio... txio... txio... - txori-amañ negaf...  
-Neuk pozik alakutrik ofek aínbat bidaf  
Txio, txio, txio, jene zori-txara!  
Neure kumatxu maitiok ik ostu biafa... .

- ¡lxil txori-ama... ezegik negafik,  
Euk baxen ondo umiok euko yuataz nik  
Kayolatxu batzen jan ta edanian  
Abestu dagijken alai gura dabenian.  
- Ene zori-txara! gnok alai abestu...  
Azkatasun-barik beti baldin ba-dau estu?

ETAR KEPA.

## MENDIYAN İLUNABAÑA

Ba-datoñ gaba bere estalki beltza  
poliki-poliki zabalduaz...  
menditarari, ainbeste mañe duan  
árgiya kenduaz...  
dena da gentza la ixitasuna...  
iluna ganian da...  
mendiko poza ta aiafasuna  
eguzkiarekin juan da.

Ez da mendiyan orain aditzen  
artzaren txisturik,  
ezta abesti ta pozezko algara  
artzain politarenik,  
ez lekaiako zoli, ta oyn alai,  
ez txorien abestirik,  
mendi edera ilik bezela dago  
dena ixil-xilik.

Ilargia ageftzen ari da, banan  
ez berak nai beste;  
bere argi motela obeki azaltzeko,  
ilunago nai luke;  
datorriyon itzala astindu-nairik, dago  
mendiya bere eske,  
eta mendiyakin baita apal-apalik  
mendita ere.

Ilunabafa da... ta mendiyan dena  
izanik ixilasuna,  
bereala datoñ berera ausitzera  
basatzauñoko ezkiña;  
onexek die azkar menditarri jaso  
donokirontz biotza,  
Miren Neskutzarri agur bat dalarik  
mendiyan ilunabafeko soñu-otsa.

TENE.

••••• Eguraldi otza dagonian, bero-aldijan baño geyago jaten da.

## Atzakaz zenbakoi zu (multiplikau)

Seitik amaerañteko zenbakijak atzakaz zenbakoi zuten irakatsiko dogu.

Autarako atz bakotxari zenbaki-ixena imini biañ-yako.  
Esku bijetan ixen barðinak.

Orkoruaren ixena da sei; andiñrena saspi; bijozeria zoitzi; eresteria bederatz; zinafteria anañ.

Zenbakoi zu gura diran esku bijetako zenbaki eriak, atzak alkafaganatu biañ dozuz ta ikusten dozunez bi dira: orkororantza geratzen diranak zenbata ta gustijkaz zenbaki bat egin: zenbaki ala amañkoitzu, alegia; gurbiak amañtzat etsi, aunerakoa batiz, oso iuri ustiañ (zero) bat eskumaldian ezaztia naiko dozu.

Au egindako gero, zinaftererantz diran eriak, atzak begitu, ta esku batekuak bestekuak zenbakoi zu, ta len iminiñ dogun amarkoiztubari geyagotu; gusti au zuk gura dozun zenbakia da.

Adibidez; saspi zoñtzi-koitzu gura dozunian esku bateko saspi-eria ta besteko zoñtzi-eria alkafaganatu-biañ dozuz; dakixunez bi dira: orkoror-ererantza iru atz geratzen yatzuz, batzau dozuzan bijakin bots, amarkoiztuta, bostamaf.

Zinaftererantz esku batian iru ta bestian bi dira; alkafegaz zenbakoi zu ezkero, iru bikoitzta sei, lengo bostamafakin bostamaf ta sei.

Izan be,  $7 \times 8 = 56$ .

LARIZONDO.